

Herririk Herri | 31

Menu ekologikoa eskainiko du irailetik aurrera Platerueneko jatetxeak

Amalurra | 181

Eraginkortasunez gidatzeko eta hirian bizikletaz ibiltzeko ikastaroa Durangon



Berbaz | 81

Juanito Gallastegi: "Nire oroitzapen eta hausnerketekin idatzi dut liburua"

Lurralde Planaren arabera, 8.074 etxebizitza eraiki litezke 8 urtean

- > Jaurlaritzaren Lurralde Zati Planak 4.037-8.074 etxebizitza aurreikusi ditu Durangaldean
- > Izurtzan saihesbidea eta lurretan lurpeko pasabidea eraikitzea ere aurreikusi dute

2

'Rock' diskoa aurkeztuko du Kilaueak Elorrion

KULTURA • Idir Records estudioetan grabatu zuten zazpi kantako *Rock* izeneko lehenengo diskoa aurkeztuko dute Atxondo, Otxandio, Elorrio eta Lazkaoko musikariek osatzen duten Kilauea taldekoek Elorrioko jaietan. Bihar joko dute Elorrion, eta bertan ipiniko dute diskoa salgai, 5 euroan. Atxondoko Gaztetxean daukaten entsegu lokalean aurkeztu digute diskoa.

13



'Non Stop 24 ordu', Jon Karro triatleta abadiñarraren erronka bizikletan

KIROLA • Gaixotasuna kirolke egiteko aitzakia ez dela erakutsi guran, 24 ordu geratu barik bizikletan ibiliko da Jon Karro. Iron Man bat amaitzen Europako lehen diabetikoa da triatleta abadiñarra. Erronka berri honetan, Durangaldean zehar ezarriko du ibilbidea irailaren 24an, Abadiñotik irtenda. Ultra-fondoko munduko txapeladuna bidelagun du.

15

• Durango

Neanderthaleko gizakiaren gaineko erakusketa

3

• Berriz

Frankismoaren biktimei omenaldia irailaren 11n

4

• Mallabia

Kultur Etxeko teilatua konpondu du udalak uda aprobetxatuta

6

• Zaldibar

Euskalmetek estazioa ipini du Eitzaga auzoan

7



HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Lurralde Zati Plana, behin betiko onartuta

Datozen 16 urteetan lurrei zer erabilera emango zaien zehazten duen plana onartu du Jaurlearitzak

Datozen 16 urteetan Durangaldeko herrietako lurzoruen erabilera (lurraz zertara bideratuko diren) zehazten duen Lurraldearen Zati Plana onartu zuten uztailearen 26an Eusko Jaurlearitzan. Mallabia eta Otxandio ez daude plan horren barruan, Debabarreneko eta Araba erdialdeko zati-egitasmoetan jaso dituztelako, hurrenez hurren.

Etxebizitzetarako dagokionez eskaini beharreko gutxienezko eta gehieneko kopuruak zehaztuta daude planean. Datozen 8 urteetan, beharrezko 2.360 etxebizitzakoa izango dela kalkulatu dute; baina

Datozen 8 urteetako bizileku beharrezkoak 4.037 eta 8.074 artean ezarri dute

“eskaintza urriaren ondorioz espekulaziorik eman ez dadin”, kopuru hori handitu daiteke. Formula berria aplikatuz, etxebizitza beharrezkoak, orokorrean, 4.037 eta 8.074 artean ezarri dute. Herririk herri, hauek dira zenbatekoak: Durango (2.803/1.402), Abadiño (946/473), Elorrio (662/331), Berriz (459/230), Iurreta (514/257), Zaldibar (367/183), Atxondo (125/63), Mañaria (43/22), Garai (22/11) eta Izurtza (20/10).

Jarduera ekonomikoari dagokionez, 1990etik 2002ra lurzoru kontsumoak eskualde egituraren izandako prozesu hartu dute erreferentziatzat; urteko 10 ha. Ondorioz, planak ezartzen duen derri gorrezko lurzoru industrialaren eskaintzaren udal aplikazioa (zortzi urterako kopuru handitua), gutxienez, 113,63 ha da eta, gehienez, 227,25 ha. ■ J.Derteano



Plana joan zen uztailearen 26an onartu zuen Eusko Jaurlearitzak.

Iurretan lurpeko pasabidea eta saihebidia Izurtzan

Garraio ereduari dagokionez, planak Iurretan eta Izurtzan auto emaria gutxitzeko egitasmoak jaso ditu. Iurretan N-634 errepidea lur azpitik bideratzea aurreikusi dute eta, bide beretik, baita gainazalean gertatzen den lur zatia birmoldatzea

ere, herri gunea bateratuz. Era berean, Izurtzak hainbeste bider eskatu duen saihebidia ere jasota dator planean.

A-8 autopista Durangalde mailako joan-etorri luzeak egiteko erabiltzea aurreikusi dute Planean, baina ez da zehazten

gauzatzeko neurririk edo baldintzarik.

Amorebieta-Etxano eta Elorrio arteko garraio publikoaren plataforma eskusiboa ere ezarri gura dute, esaterako, autobusentzako errei propioak eginez. Herriak lotzeko bizikletentzako bidegorri sarea osatzea ere jaso dute; herri barrukoak ez eze, herriak bata besteagaz lotzeko bideak.

ABADIÑO

Muntsaratz auzoko jaiak asteburuan

Domekara arteko egitarau zabala prestatu dute auzo elkartekoa Muntsaratzko jaietarako



Ohiturazko tortilla eta paella txapelketak izango dira.

Gaur iluntzean, 19:00etan, Doniatxa altxatzeagaz batera emango diete Abadiñoko Muntsaratz auzoan jaiei hasiera. Iluntzean eta gauean, besteak beste, Kalitatea Fundazioaren laguntzagaz antolatutako parrillada eta DJ emanaldia izango dituzte.

Hurrengo egunekoak, zapatuko Mozorro Egunekoak, da ekitaldirik gehien jasotzen dituen jaietako eguna. Besteak beste, umeentzako jokoak, buruhandiak, karta-jokoa eta gastronomia txapelketak izango dira aukeran.

Irailaren 3ko lehenengo ekitaldia 11:00etan hasiko den Argazki Rallya izango da; eta goiz, arratsalde eta gauez ere adin eta gustu guztietako laguntzat hainbat proposamen ditu programazioak.

Zapatuko Mozorro Egunerako, irailaren 3rako, antolatu dituzte ekitaldirik gehien

Zapatu gauean, esaterako, 23:30ean su-artifizialak eta 00:00etan dantzaldia izango dira. Jaien azken egunerako, irailaren 4rako, eskaintza zabala dakar Muntsaratzko jaietako egitarauak. Goizean hasi eta despedidarako txokolatadaren aurretik jai giroa izango da bertan nagusi. ■ I.E.

Diru-laguntzak euskara ikasleentzat

2010-2011 ikasturtean euskara ikasten aritu direnek egin ahalko dute diru-laguntza eskaria

Asteon zabaldu dute epea, eta irailaren 30era arte aurkeztu ahal izango dituzte 2010 eta 2011 ikasturtean euskara eskolak jaso dituztenek Abadiñoko Udalak eskaintzen duen diru-laguntza jasotzeko eskariak.

Joan den ikasturtean euskara ikastaroetan jardun duten herritarrek matrikula-kostuaren %100 jaso ahalko dute. Hain zuzen ere, izena emandako ikastaroaren saio guztietara joan izana fro-

gatzen dutenek jasoko dute matrikularen kostu guztia udalaren laguntzatik. Jose Luis Navarro alkateak azpimarratu duenez, “laguntzak jasotzeko, gutxienez, %80ko asistentzia ziurtatu behar” du eskatzaileak.

Euskaltegiaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, besteak beste, eskatzaileak

Errota kultur etxean zein Udal Mediatekan aurkeztu dituzkete interesdunek diru-laguntza eskaerak. Horretarako, NANaren kopia eta matrikularen ordainagiria, euskaltegiaren ziurtagiria (emandako eta jasotako orduen zehaztasunekin eta ikastaroaren hasierako eta amaierako datarekin), eta kontu-zenbakia aurkeztu beharko dituzte. Udalaren webgunean dago diru-laguntzari buruzko informazio guztia. ■ I.E.

Errota kultur etxean zein Udal Mediatekan aurkeztu daitezke eskariak

Matrikularen kostu guztia jasoko dute saio guztietara joan direla frogatzen dutenek



DURANGO

Alderdiekin batzen hasi da Durangoko Txosna Batzordea

Txosna Batzordeak erronda hasi du Durangoko udalbatzarrean ordezkaritza duten alderdi guztiekin. Irailaren 8an Kultura Batzordea bilduko da, eta bertan euren ikuspuntua azaltzea gura dute.

Udalagaz sinatutako akordioa 2009an amaitu zen, eta harrezkeror udalak ordura arteko errotazio berdinagaz jarraitu du. Baina Txosna

Irailaren 8ko Kultura Batzordean euren ikuspuntua jakinarazi gura dute

na Batzordeak du txosnagunea Zumar kalean jarri gura: "Adin guztietako durangarrentzat ekin-tzak antolatzen ditugu, eta Zumar kalean jende gutxiagok parte hartzeaz gainera, aparte geratzen da herri giroa aberasteko", diote.

Sinadura bilketari dagokionez, hilabete honetan herriko hainbat lekutan sinatzeko aukera erraztuko dute. Abuztuan, taberna batean, ia 500 sinadura lortu dituztela jakinarazi dute. ■ J.D.

Menu ekologikoa eta aukera ugaria Plateruenean

Durangaldeko baserriarren eta Marisatsa elkartearen bidez eskuratuko dituzte produktuak

Ikasturteari berrikuntzaz beteta ekin diote Plateruena kafe antzokiko sukaldean. Astelehenetik zafura, eguneko menua ematen jarraituko dute, baina hainbat berezitasunekin.

Berrikuntzen artean esanguratsuen menu ekologikoa da. Antzokiak egunero produktu ekologikoekin prestatutako lehenengo eta bigarren plater bana eskainiko ditu. Plateruena jartzen duten jenero guztia ekologikoa dela bermatzeko, nekazaritza ekologikoan diharduten Durangaldeko baserriarren eta Marisatsa elkar-

Janari osasuntsuaren aldeko apustua egin gura dutela adierazi dute Plateruenetik


tearen laguntza izango dute. "Janari osasuntsuaren aldeko apustua egiteaz gainera, eskualdeko baserriarrek lan egitea da asmoa", azaldu du Itsaso Oliveirra jatetxeko arduradunak.

Berrikuntza ugari

Egunero izango da berezitasunen bat: astelehenean %10eko deskontua, martitzenetan plater konbinatua eskainiko dute menuaz gainera eta eguaztenetan beste herrialde batetako jakiren bat. Eguenetako kafea eta barikueta-ko aperitiboak antzokiaren kontu izango dira. Gainera, orain arte moduan, jateko begetarianoa ematen jarraituko du antzokiak, eta baita umeendako menu erdia ere. Menu bonoa eskuratuta, hamargarren bazkaria doan ematen jarraituko dute. ■ J.G.



Oporraldiaren ondoren, egunean zabaldu dute sukaldea.



Mamuten maketak ere egongo dira ikusgai.

Neanderthal sasoiko gizakiaren gaineko erakusketa ikusgai

Landako Gunean atonduko dute bihar eta etzi; 1.300 metro karratu dira, Izotz Aroari eskainita

Bihar eta etzi Izotz Aroko gizon neanderthalari buruzko erakusketa ikusgai egongo da Landako Gunean. 1.300 metro karratutan, sasoi hartako gizakia zelan bizi zen jakiteko modua eskainiko dute, hainbat euskarri erabiliz; irudi animatuak, entzuteko prestatutako muntaiak, panel informatiboak, eguneroko bizitzan erabiltzen zituzten objektuen bildumak...

Sasoiko gizakiaren ohiturak eta bizimodua erakutsiko dituzte hainbat euskarritan

Muntaia berean, dinosauroen tamaina errealeko maketak ere ikusi ahal izango dira

Erakusketan Izotz Aroan existitu ziren animalien (mamuta, hartza...) tamaina errealeko maketak ere egongo dira.

Muntaia berean, baina beste erakusketa baten moduan antolatuta, bisitariak dinosauroen maketak (T-Rex, Triceratops...) ere ikusi ahal izango ditu.

Erakusketa 11:00etatik 21:00etara egongo da zabalik, eta sarrera 9 euro izango da helduentzat eta 6 euro 3-12 urte arteko gaztetxoentzat.

Belgikar baten ekimena

Orain 10 urte, Dirck Claesen artista plastikoak sustatu zuen proiektu hau. Bere asmoa, dibertsioaz gainera, heziketarako ere baliagarria izango den erakusketa informatibo-ludikoa antolatzea izan zen. Belgikan eta Frantzia arrakasta handia izan du ekimenak. ■ J.D.

GARAI

Otea-Loran elkarteko komunak, konponduta

Utzailearen 11n hasi zituzten Otea-Loran elkarteko komunak berrikuntzeko lanak, eta abuztuaren erdialderako amaitu zituzten, udal arduradunek azaldu digutenek.

Eraikinaren irisgarritasuna bermatzeko helburuagaz egin dituzte lanak. Guztira, proiektuaren aurrekontua 30.874 eurokoa izan da, eta horietatik 5.445 euro Eusko Jaurlaritzatik jaso ditu Garaiko Udalak.

Lanak amaituta, Andra Maria egunerako zabaldu zuten ostera ere elkartea

Abuztuaren 12 bueltan lanak amaituta, Andra Maria egunerako zabaldu zuten ostera ere elkartea, garbiketa lanak eta eginda, adierazi dutenez. Modu horretan, kultur etxe berriaren eraikina guztiz eraberrituta geratu da, obra osoa amaituta. ■ M.O.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

katerin ardoak
iñaki uribe
saltzan
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltzan.com

"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

BERRIZ



laz ere hainbat herritar batu zen Oroimenaren Bidean.

Frankismoaren biktimak gogoan, irailaren 11n

Orduko Berrizko alkatea eta guardia fusilatu zituzten 1937ko irailaren 11n

Aurten ere, urtero legez, Francoren kolpe eta erregimenak hildako berriztarrak omentzeko ekitaldiak eratu dituzte Berriz 1936 Gogoratzen elkar-teak eta udalak. “1936ko estatu kolpe faxistari aurre egitearren fusilatutako zein kartzelan hildako berriztar guztiak oroitzea eta gorestea” dute helburu.

Goizeko 11:00etan burutuko dute ekitaldi nagusia Oroimenaren Bidean, udaletxeko parkean. Bertsolariak eta dantzariak parte hartuko dutela iragarri dute, baita lore-eskaintza egingo dutela ere. Aurten bada berrikuntza esanguratsu bat: biktimen omenezko oroitarria inauguratuko dute.

Goizeko 11:00etan hasiko den ekitaldian biktimen omenezko oroitarria inauguratuko dute

Eguerdiko 12:15ean Debekatuta dago oroitzea proiektatuko dute

Eguerdiko 12:15ean Kultur Etxera hurreratu eta dokumental batez jarraituko du egitarauak. Txaber Larreategik eta Josu Martinezek filmatutako *Debekatuta*

dago oroitzea proiektatuko dute bertan. Gainera, ondoren luntxa ere eskainiko dute antolatzaileek.

Alkatea fusilatu zutenekoa Kolpea izan zenean, orduko gobernu demokratikoa defenditu zuen Felipe Urriaga alkateak. Herriko Defentsa Komiteburu izendatu zuten; Gregorio Urkijok eta Jose Agirrek beragaz egin zuten lan. Frankistak 1937ko apirilaren 25ean sartu ziren herrian, eta 1937ko irailaren 11n fusilatu zituzten Urriaga alkatea eta Agirre guardia, Derioko kanposantuan. Urkijo leku berean hil zuten, eta Agustin Miliakua eta Fermin Aranguren ere erail zituzten. ■ M. Onaindia

ELORRIO

Jai-giro onean ospatu zituzten, joan zen asteburuan, San Agustín auzoko jaiak. Deneriko ekin-tzak izan zituzten barikutik domekara: trikitaliak, erromeria, bazkariak eta afariak, laguntza txakurren taldearen erakustaldia... antolatzaileak pozik azaldu dira, jende asko bertaratu zelako.

Ekintzen artean, berezitasun bat prestatu zuten aurtengo ediziorako: Artiabasora mendi irteera, zapatu goizean. Buzoia ere ipini zuten tontorrean, eta ez edo zelakoa, gainera. Azaldu digutenez, auzoan desagertu den azken baserriaren—XVI. mendeko Etxebarri Bein— itxura eman diote buzoia; “San Agustinen desagertu diren baserri eta eraikin historiko guztien oroimenez” egin dute. Horregatik, buzoia barruan lehenengo mezua sartu dute auzotarrek, “iragana ez da hil, eta etorkizuna geuk eraikiko dugu” adieraziz, besteak beste. ■ M.O.

Eraikin historikoak gogoan San Agustingo jaietan

Joan zen astean ospatutako San Agustín auzoko jaiekin gustura geratu dira antolatzaileak



Zapatuan buzoia berezia ipini zuten Artiabason.

Txakur arriskutsuak erroldatzeko lizentzia

Berrizko Udalak txakur arriskutsuen jabe izan eta hauek erroldatzeko administrazio lizentziaren deialdia egin du. Horretarako prozedura eta tramiteak udaleko erregistro orokorrean burutuko dituzte, eta arriskutsuak

izan daitezkeen txakurren jabeek deia egin die bertatik pasatzeko. Irailaren 30a da azkeneko eguna; horrelako animaliak edukitzeko beharrezkoa da lizentzia izatea. Modan daude, eta administrazioek jabetzakerregulatzeko neurriak hartzen dihardute.

Azaldu dutenez, hauek dira erroldatu beharreko arrazak: Pit Bull Terrierra, Staffordshire Bull Terrierra, American Staffordshire Terrierra, Rottweilerra, Dogo Argentinarra, Fila Brasileiroa, Tosa Inua eta Akita Inua. ■ M.O.

OTXANDIO

Udalaren eta AEKren arteko hitzarmena, Berbalagun garatzeko

Orain urte biko proba pilotuaren arrakasta ikusita, izaera ofizialagaz itzuliko da Berbalagun irailean

Orain urte bi Berbalagun egitasmoa abiatu zuen AEK-k Otxandion. Proiektu pilotua izan zen, herritarren artean zer harrerazuen ikusteko. Ekimena arrakastatsua izan zenez, orain, irailetik aurrera, izaera ofizialagaz itzuliko da. Udalaren eta AEKren artean hitzarmena sinatu dute, eta dinamizatzaile orokor bat beren beregi egitasmoa kudeatzen arituko da.

Irailean zehar euskaldun osoak eta euskara maila hobetu

Sinatutako akordioagaz, dinamizatzaile bat beren beregi egitasmoa kudeatzen ariko da

Seme-alabekin euskaraz egin gura duten gurasoen taldeak eratuko dituzte etorkizunean

gura dutenak batzeko kanpaina hasiko dute. Interesatuen artean galdetegia banatuko dute, euren gustuak ezagutzeko eta taldeak noiz eta nola osatu daitezkeen jakiteko. Asmoa egitasmoa urrian

Irailean kanpaina abiatuko dute berbalagunak bilatzeko, eta urrian hasiko da martxan

martxan ipintzea da. Orain urte bi 16 lagunek eman zuten izena eta lau talde osatu zituzten.

Gurasolagun

Etorkizunean gurasoei begirako egitasmoa abiatzea ere badute helburu. Euskaldun osoak ez diren gurasoek euren seme-alabekin duten hartu-emana euskaraz sustatzea bilatuko du Gurasolagunek. AEK antzeko egitasmoak garatzen dabil hainbat herritan. ■ J.D

Dantza eta koreografia berriak ikasteko aukera

Sabel-dantza eta koreografia modernoan ikastaroak emango dituzte, urrian hasita

Iturri Dantza Akademiak 2011-2012 ikasturterako bi ikastaroren berri eman du: sabel-dantza eta koreografia modernoan ikastaroak. Irailaren 21a baino lehen-

Sabel-dantza urritik ekainera izango da, eguaztenetan, 19:15etik 21:15era

go apuntatu beharko dute interesdunek sabel-dantzarako. Urritik ekainerako iraupena izango du, eguaztenetan garatuz, 19:15etik 21:15era. Arabiar dantza eta pau-

soez gainera, beloaren teknika edo zutargiaren dantza lakoak erakutsiko dituzte.

Koreografietan, irailaren 24a da izena emateko azkeneko eguna. Zapatuetan, 10:00-12:00 artean burutuko da, urritik abendura. Koreografia “dinamiko eta dibertigarriak” izango ei dira. Euskaraz emango dituzte biak, ikasle guztiek ulertuz gero. ■ M. Onaindia

Koreografiak zapatuetan izango dira, 10:00etatik 12:00etara, urritik abendura

Gremioen gida

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta



PUJANA
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

ITURGINTZA

berriozabaleta
Iturgintza • Berokuntza
gremioen koordinaketa
jose miguel acedo
mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55
berriozabaleta@yahoo.es
48230 Elorrio (Bizkaia)

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com



Panasonic

ARGIZTATZE TEKNIKAK MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Solaguren kalea 3 • ABADINO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.al@terra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goietia, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

DEKORAZIOA

a-metz
[barne] diseinua
Diseinua - Dekorazioa
Ideiak - Proiektuak 3D
Legalizazioak - Erreformak
Gremioen koordinazioa
Altzariak - Osagarriak
www.a-metz.com

Ibaizabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81 • Durango

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

LORAZAINTZA

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

AROTZERIA

EGUIA s.l.
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •
Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaeguia.com

sagasta
ITURGINTZA
Iñaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak

GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA

Sagasta auzoa, Ambe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24

MALLABIA

Kultur Etxeko teilatua konpondu du udalak udan

Itoginak sortzen zirelako konpondu dute Kultur Etxeko teilatu osoa. Ekainean ekin zieten lanei

Konponduta dago dagoeneko Mallabiko Kultur Etxeko teilatua. Ekainaren erdialdean obrak martxan jarri zituen udalak, eta udako oporrak baliatu dituzte eraberritzea aurrera eramateko. Kultur Etxean batzen diren herriko elkarteei ahalik eta kalte gutxien sortzea izan dutela helburu azaldu dute udal ordezkariak; lanek iraun duten bitartean ezin izan dute KZgunea erabili. Liburutegiari, aldiz, ez diote eragin lanek. Udalak 113.121 euroko aurrekontua izan du lanotarako.

Eraikina kultur etxe moduan egokitu zutenean, orain dela 15 urte, teilatua ez zuten konpondu. Harrezkero, teilak biguntzen joan dira eta itoginak sortzen hasi dira. Oraingoan, teilatua osorik konpondu dutela azaldu dute: "Teilak birrindu egiten ziren" ■ J.G.

"Kultur Etxeko teilak birrindu egiten ziren", azaldu dute udal arduradunek



Ikasturte berrirako prest dago Mallabiko Kultur Etxea.

IURRETA

Baliabideak gehituko dituzte hiri-garbiketarako

Hamar urtera luzatu daitekeen kontratua lotu gura dute, 1,5 milioi euroko inbertsioagaz

Mallabiena eta Arriandiko industria poligono berriak, Beresi aisialdi-gunea eta Aita San Migel plaza inguruko aldaketak dira herrian azken urteotan egindako aldaketen adibide. Premia berriei aurre egiteko, hiri-garbiketara zerbitzurako baliabideak gehituko ditu udalak, eta aparteko administratuzio

kontratuaren baldintza teknikoaren eta klausula administratiboaren pleguak onartu dituzte: zortzi urteko kontratua—urte bira luzagarria—esleitzeko prozesua hasi du, 1,5 milioi euroko inbertsioagaz; urtean 20.000 euro handituko dute orain arteko aurrekontua.

2012ko urtarrilaren 1ean eduki gura dute martxan. Lanaldi oso bi eta erdi bat batzen dute pleguek; baita garbitzaile mekanikoa, kamioi txiki bat eta Durangaldean lokal bat izatea ere. ■ A.B.

Lanaldi oso bi eta erdi bat batzen dute onartutako baldintza orriek

ATXONDO

Urtean zehar egindako aldaketekin osotu dute Hirigintza Plana

DVDan dago eskuragai. Plenotik pasatu behar da, eta gero Aldundiak emango luke azken onarpena

Urte hasieran aurrerapen dokumentua aurkeztu zutenetik, hainbat ekarpen jaso ditu Atxondoko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak.

Markoidan 100 etxebizitza baino gehiago aurreikusi dituzte, % 60 babesekoak

Herria datozen urteetan zelan garatuko den zehazten duen txostenak hainbat aldaketa izan ditu, eta udalak DVD baten ipini du plana, herritarren eskura.

Udal arduradunek azaldu dute aldaketak ez direla "nabarmen-nabarmenak" izan. Etxebizitza arloan, esaterako, Markoidan eraikitzeko diren etxebizitza kopurua handitu egin dute, 90etik 100

baino gehiagora. Etxeen % 60 babes ofizialekoak lirateke.

Industriarako bost hektarea inguru birkalifikatuko litzukete Artia eta Cemosa artean, Durangotik etortzerakoan eskuma aldean geratzen den lursailean. Polikiroldegia hasieran adostutako lekuan joango litzateke, Itziar taberna eta Anboto kalearen artean.

Artia eta Cemosa arteko 5 hektarea industriarako kalifikatuko dituzte

Udazkenean, plenora

Udalbatzak udazkenean onartu beharko du plana. Ondoren, hile biko alegazio epea egongo da, eta alegazioei erantzun eta gero Foru Aldundira bidaliko dute plana, behin betirako onartzeko. ■ A.U.

Anbotoren argazki lehiaketa: 2012ko egutegia

Urriaren 1a arte epea zabalik hartu egizu parte!

Durungaldean labor

Gero eta "estrategikoagoa" da Erralde sektorearentzat

Euskal produktoreak defendatzeko "oinarrizko gilitza" bihurtzen dihardu Erraldek; "gehiago Bizkaian". Hiltegiako arduradunek jakin eragin dutenez, 2011n, 6.088 behi-buru hil dituzte: %85 EAekoak izan dira; horreetariko %78 Bizkaikoak. Bizkaikoak izan dira hildako 3.380 bildotsetatik 3.350 ere (%99), Bizkaiko Bildotsa moduan komertzializatuak. Bestalde, 99 ahuntz eta 56 zaldi hil dituzte.

Maiztegiko komunak konpondu dituzte

Maiztegi eskolan bigarren pisuko komun irisgarritasuna hobetzeko eta umeentzako erabilgarriagoak egiteko lanak egiteko aprobetxatu dute uda. Ikasleendako komun orokorrean, komun indibidualak handitu eta konketak umeen premietara egokitu dituzte; irakasleenak txikitu dira. 49.621 euroko aurrekontua izan dute.

Domekan hasiko dituzte dantzaldiak

Domekan, irailaren 4an, hasiko dituzte berriro dantzaldiak Ezkurdin. Horrela jakin eragin dute udal arduradunek. Udaleko Adinekoen Sailak antolatutako dantzaldiok hainbat orkestrek girotuko dituzte, 18:30etik 20:30era bitartean. Euria eginez gero, Merkatu Plazan izango dira.



ZALDIBAR

Estazioa ipini du Euskalmetek Eitzaga auzoan

Datuak agentziaren webgunean ikusi daitezke

Haize, temperatura, aire, hezetasun erlatibo eta prezipitazioaren berri jakiteko sentsoreak ditu Eitzagako estazio berriak, eta etorkizunean eguzki-erradiazioari buruzko informazioa emango duela iragarri du Jaurlaritzako Herriazaingo Sailak. Zaborteziaren parean kokatu dute ekipoa.

Euskal Meteorologia Agentziaren iturrien arabera, Eitzagako estazioa Zaldibar, Ermua eta Eibarren jazoko diren egoera meteorologikoen adierazle izango da. "Bere kokapen geografikoari esker, haizeak norabide horretan kanalizatuko dira lehen tasunez, eta brisa zein hegoaldeko haize indartsuen intzidentzia

erregistratuko du", Euskalmeten arabera. Eitzagako estazio berriak uneoro jasotzen dituen datuak eskura daude, dagoeneko, www.euskalmet.euskadi.net webgunean.

Meteorologia agentziak 87 estazio dauzka autonomia erkidegoan zehar, eta horietatik 7 Durungaldean daude: Elorri, Iurretan, Mañarian, Oizen, Otxandion, Urkiolan eta, azkena, Zaldibarko Eitzagan. ■ M.Onaindia.

Zaldibar, Ermua eta Eibarko egoera meteorologikoen adierazle izango da



Zabortezi ondoko estazioak hiru gailu ditu datuak jasotzeko.



MAÑARIA

Udalaren webgunean zerbitzu berriak aukeran

Azken hilabeteetan martxan egon den gunean oinarrituta, hainbat berrikuntza egin gura dute

Udalaren webguneari erabilgarritasun handiagoa zelan eman aztertzen dihardu Mañariko Udaleko Bilduko gobernu talde berriak. Azaldu digutenez, azkeneko hiletan martxan egon den webgunean oinarrituta, zerbitzu berriak eskai-

Udalaren osoko bilkuretako deialdiak, aktak eta abar 'www.manaria.org' helbidean eskuragarri ipini gura dituzte

IZURTZA

Emakumeei zuzenduriko frontenis txapelketa

Azken lau-bost urteetan herriko jaietan arrakasta handia izan duen frontenis txapelketa berritasuna bategaz dator aurtengoa; orain arte gizon artean jokatu duten txapelketaren lekuan, emakumezkoena prestatu dute aurtengoa Gazte Lokaleko antolatzaileek.

Jaien lehenengo egunean, irailaren 2an, arratsaldean, hasiko den txapelketaren irabazlea nor den ere gaur iluntzean bertan jakingo dugu.

Txapelketa hasi aurreko egunean (egunean) lau bikotek zeukaten izena emanda, eta beste horrenbeste gehiago itxaroten zizuten. Izurtzako bikote batek, eta Durungaldeko kirolariek ere emana zuten izena.

Lau urtean Izurtzako jaietan jokatu duten txapelketa arrakastatsua, beraz, berritasunekin dator aurtengoa. ■ I.E.

Hurrengo eraikuntza

ZARATE ELEXPE ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73
lurreta • www.zarateylexpe.com

Elorri ere aukera onak

R.P.S. 214/06

A. Urreta podologo

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Adinara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

BERBAZ >

“Nire belaunaldiak oso momentu interesgarriak bizi izan ditu herriari eta elizari dagokionez”

Txikitako, seminarioko eta bere abade bizitzako hainbat kontu batu ditu *Tontorretik begira* izeneko liburuan

Abadetzan 50 urte bete zituen Juanito Gallastegi durangarrak 2008an. Ibilbide horren ondoren, ‘Tontorretik begira’ liburua kaleratu du. Ez da biografia bat, hori argi utzi gura izan du; bere hainbat bizipen eta hausnarketaren bat batu ditu liburuan. Besteak beste, bera abade egondako herrietan banatu dituzte liburuen aleak.


Zelan sortu zen liburua egiteko ideia?
Abade egin nintzeneko urrezko ezteiak izan ziren orain dela hiru urte, eta, hori zela-eta, baten batek esan zidan *Anboton* eta bestelako lekuetan idatzitakoak batu eta liburutxoaren bat egin ahalko litzatekeela. Ander Manterola Labayruko buruagaz egon nintzen, eta ondo iruditu zitzaion. Hasi nintzen batzen Anbotokoak, eta *Anaitasunan*, *Zeruko Argian*... inoiz idatzitakoak. Arrate Irratian *Oiztik Anbotora* irratsaioa egiten genueneko paper batzuk ere agertu zitzaizkidan, eta eurak ere batu nituen.

“Comillasen ikasteak argi eragin zuen nire euskaltzaletasunean”

Baina liburuan ez da horrelako artikulurik agertzen.

Anderrek esan zidan sarreratxo bat egiteko artikuluei; nire bizitzaren inguruan, nire abadeztako urrezko ezteiak ziren-eta. Bost orri idatzi nituen eta, antza, gustatu egin zitzaion; “Hau puztu egin behar dok!” esan zidan. Hasi nintzen puztu, eta horrela sortu zen liburua. Beraz, hasieran liburua bi zati izan behar zituen: nire oroipenak eta batu nituen artikulua. Hiru urtean, krisiagatik-edo, geldirik egon da, eta azkenean Labayrukoek esan zidaten argitalpenek orri gutxiago izan behar dutela orain. Oroipenen zatia baino ez da argitaratu azkenean. Gainera, laburtu egin behar izan nuen puztutako hori ere! Elorrio eta Atxondoko pasarteak 36 orritik 20ra pasatu behar izan ditut hiru-lau egunetan! Artikuluen bilduma beste noiz edo noiz argitaratuko da, beharbada.

Biografia barik, “oroipenak eta hausnarketaxoren bat edo beste” idatzi dituzula diozu liburuen hasieran.
Bai, hori argi geratu dadila gura dut. Ez dira agertzen nire bizitzaren ardatz izan daitezkeen eta nigan era-



“Nire lehen oroipenak Durangoko bonbardaketakoak dira. Seminarioan Gernika eta Durango gorriek erre zituztela entzutean hori ez zela horrela izan esan nuen”

gin handiena izan duten gertaerak eta bizikizunak. Oroipen batzuk baino ez ditut batu, jendeak gustura irakurriko litzatekeela pentsatuta.

Gerrakoak dira lehen oroitzapenak.

Durangoko bonbardaketa oso ondo gogoratzen dut, hiru urte baneuzkan ere. Elorrioren gudariak Intxortarantz joaten ikusi nituenekoa ere... Gero, Comillasen historia ikasten nentzela, Gernika eta Durango gorriek erre zituztela esan zuen irakasleak, liburutik, eta nik hori ez zela egia. Neronek bizitakoa kontatu nion gero berari. Zur eta lur geratu zen; sinestean zuena eta entzuten zebilena his-

toria bi ziren. “Se suprime esta lección”, esan zuen hurrengo egunean.

Liburuan diozu, beharbada, Comillasen ikasi zenuelako piztu zitzaizula euskaltzaletasuna.

Ez dakit han ez banintz egon zer izango zen, baina argi-argi eragin zidan. Han alde guztietakoak geunden, eta ondo konpontzen ginen. Kataluniarrek barre egiten ziguten hemengo batzuk gure artean ez genuelako euskaraz egiten. Ez zekiten Bilbo eta Barakaldo inguruan ez zela euskararik egiten; gipuztekin-eta bai, beti euskaraz aritzen ginen. Gero, zortea eduki nuen gaztetxotan

Juanito Gallastegi •
Abadea

- Durangarra da
- 77 urte dauzka

“Oromiño zero txikia zen niretzat; oso ondo onartu ninduten”

Aita Gaizka Barandiaran jesuita eta hainbat euskaltzale ezagutu nuelako.

Iurretako egotaldian oso zoriontsu zinela esaten duzu liburuan.

Gaztea ere banintzen... zeruan nengoen han. Ondoegi onartuta nengoen. Oso momentu interesgarriak ziren herriari eta elizari begira, hurrengo urteak legez. Euskara bazihoan pikutara, eta ahalegindu ginen buelta ematen. Iurretan Oromiño kargua neukan, eta nire lagun batentzat hura ‘Rusia Txiki’ zen, orduan zeukan zentzu txarragaz. Nik esaten nion: “Rusia Txiki? Zeru Handi da Oromiño!”. Oso gustura egon nintzen, gero Markina aldean eta Elorrioren moduan.


Modu batera edo bestera, zure bizipenekin hemen inguruko historia kontatzen duzu.

Baietz uste dut. Hainbat abadek egingo itxialdi eta ekitaldiak ere kontatu ditut. Behin gotzaitegian sartuta egon ginen protestan. Beste behin, manifestazio batean geundela polizia batzuk hasi ziren atzetik; “Sinvergüenzas, mejor dejaros la coronilla y dejaros de manifestaciones!”. Diktaduraren kontrako lehenengo pausoak uste dut abadeengandik etorri zirela; lehenengotarikoa mundu guztian ezagun egin zen 339 abadek sinatutako karta famatua izan zen.

Izen asko aipatzen duzu liburuan. Baten bat sartu barik uzteko beldurrik eduki duzu?

Asko! Agertu beharko liritekeen asko ez dira agertzen; gainera, egin behar izan dudana entresakagaz... Gehien hori kostatu zait, idatzitakoa kentzea. Agertzen ez diren izen asko urrezko letrekin ipiniko nituzke, liburuan jartzen dudanez, jende aparta ezagutu dut-eta. ■ A.Ugalde.

izurtzako jaiak 2011



anboto

Izurtzako Udalak
JAI ZORIONTSUAK
opa deutsuez



Izurtzako JAI EGITARAUA

IRAILAK 2, BARIKUA

16:00 Frontenis txapelketa.
20:00 Txupinazoa eta trikipoteo herrikoia.
22:30 Kontzertuak Gazte Lekuan.

IRAILAK 3, ZAPATUA

11:00 Pilota partidak.
12:00 Marmitako lehiaketa (bi modalitate: pil-pil erara eta bizkaitar erara). Materiala libre izango da.
13:30 Enkartelada.
14:30 Bakailao lehiaketaren aurkezpena.
15:00 Herri-bazkaria.
17:30 Bingoa.

IRAILAK 4, DOMEKA

10:00 Kalejira Jaizale taldeagaz.
11:00 Meza Santa Agedako basilizan.
12:00 Mendigain dantza taldea
13:00 Bertsolariak:
Eneko Abasolo eta Onintza Enbeita
14:30 Herri-bazkaria.
16:00 Pernil urkatua.
17:00 Kidam magoa.
19:00 Herri-olinpiadak eta txerri-harrapaketa.
20:00 Lotxo eta bere taldea.

IRAILAK 8, EGUENA

11:00 Meza Erdoitzako basilizan.
12:00 Mendigain dantza taldearen ekitaldia.

12:30 Jabier Iriondori omenaldia.

15:30 Umeentzako parkea eta tailerrak.

17:30 Pantxika eta Txinparta pailazoak.

IRAILAK 9, BARIKUA

18:00 Frontenis Txapelketa. Finalerdiak eta finala.

IRAILAK 10, ZAPATUA (Disfraz gaua)

12:00 Pilota partiden finala.
16:00 XX. Mountain bike ibilaldia.

18:00 Igel txapelketa.

19:00 Tortilla txapelketaren hasiera. 20:30ean aurkeztu beharko dira tortillak.

21:00 Herri-afaria.

23:00 Itziarren Semeak, Bek, eta Zirkinik Bez taldeen kontzertuak; jarraian, DJ-ak Gazte Lekuan.

IRAILAK 11, DOMEKA

10:00 Kalejira Jaizale taldeagaz.

11:00 Meza Santo Tomasen.

12:00 Mendigain dantza taldea.

12:30 Bertsolariak:
Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea

13:30 Gorriti eta bere abereak.

14:30 Jubilatuen bazkaria.

Jarraian, Aiora eta Ane trikitilariak.

17:00 Mus txapelketa.



RECUPERACIONES Y TROCEADOS,SAL

Elizalde auzoa, 47
Tel. / Faxes: 94 681 89 79
48213 IZURTZA
info@recytro.net
www.recytro.net



Galdaketa eta
Siderurgirako Produktuak

Foseco Española, S.A.
Elizalde auzoa, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)
Tel. 94 620 25 00 / Faxes. 94 620 37 73
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)



Txupinazoagaz, jaiak martxan

Txupinazoa jaurtita, trikipoteo herrikoian batuko dira izurtzarrak jaiari hasiera egokia emateko

Izurtzako jai egitaraua ekitaldiz beteta dator. Txupinazoa gaur 20:00etan botako dute Udaletxeko balkoitik. Ondoren, izurtzarrak trikipoteo herrikoian batuko dira. Gauean kontzertuak izango dira entzungai Gazte Lekuan. Igande eta astelehen goizak Jaizale taldearen kalejirak girotuko ditu. Meza izango da igandean Santa Agedako elizan, eguenean Erdoitzako

baselizan, eta hurrengo domekan Santotomas baselizan. Mendigain dantza taldeak mezen ondoren emanaldiak eskainiko ditu.

Umeek ere badute lekua jaietako egitarauan. Kidam magoak ikuskizuna eskainiko du domekan. Eguenean umeentzako parkea eta tailerrak prestatzeaz gainera, Pantxika eta Txinparta pailazoak hurrertuko dira Izurtzara.

Zapatuan herri-afarian batuko dira izurtzarrak. Disfraz gaua izanda, mozorrotuta joango dira mahai ingurura

Bazkariak eta afariak

Zapatuan eta domekan izurtzarrak herri bazkarian elkartuko dira. Larunbatekoa disfraz gaua izango denez, mozorrotuta joango dira herri afarira, musika emanaldietara joateko indarrak hartzeko asmotan. Gorriti eta bere abereen ondoren jubilatutako mahaiaren bueltan elkartuko dira domekako bazkarian.

Piperra eta gatzak ipiniko dute egunero lehiaketek

Kirol arloko askogaz batera, lehiaketa gastronomiko eta abarrek protagonismoa hartuko dute jaietako egitarauan

Frontenis txapelketak zabalduko du egitaraua, irailaren 2an, arratsaldeko 16:00etan. Handik astebetera jokatu dituzte finalerdiak eta final handia. Frontoian, baina, pilota norgehiagokak ere ikusiko ditugu 3an eta 10ean. XX. mendibizikleta ibilaldia ere eratu dute 10erako. Igel txapelketan ere hainbat izurtzar elkartuko da irailaren 10ean. Gainera, txerri harrapaketa eta herri-olinpiadak izango dituzte izurtzarrak irailaren 4an, 19:00etan. Bakailao onena

3an probatu ahal izango da, txapelketan. 12:00etan hasiko dira prestatzen. Jatekoagaz jarraituz, irailaren 10ean tortilla txapelketari ekingo diote. Musa ere ez da faltako, 11n.

Frontenisaz gainera, pilota partidak ere ikusi ahal izango ditugu frontoian



MEGAVIDEO
BIDEO PRODUKZIOAK

GRABATZEKO EKIPAMENDU OROKORRA:
KAMERAK, UNITATE MUGIKORRA,
POST-PRODUKZIO ETA GRAFISMO GELAK.
PLATOA

KULTUR- ETA HERRI- EKINTZAK
ENPRESAKO BIDEO PRODUKZIOAK

http://www.megavideo.es • e-mail: megavideo@megavideo.es
Elizalde, 25 - 1. Pab. • Tel. 94 620 20 55 • 48213 IZURTZA (Bizkaia)

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzailea:

JATETXEA AZKONIZAGA
Euskal Sukaldaritza

Eguneko menua

Ortuzar, 1 IZURTZA Tel: 946 812 025



“Beti ilusioz irten dut frontoira”

Javier Iriondo (Izurtza, 1965) palistak 22 urte daramatza profesionalki pilotan. Izurtzako jaietan omendu egingo dute bere ibilbide oparoagaitik. Gorputzak eutsi bitartean jarraitzeko asmoa duela dio izurtzarrak

Kantxaren barruan izan ohi zara protagonista, baina jaietan handik kanpora ere zeugan egongo dira begi denak. Aurten 23 urte egingo ditut profesional moduan, eta herriaren eta herritarren partetik omenaldia jasotzea oso polita da; egia esanda, oso pozik eta denei esker oneko nago.

“Frontoi motzean aritzeak mugimendu azkarragoak eskatzen ditu, eta fisikoki hobeto prestatu beharra dago”

Ibilbide luzea egin duzu palan. Zer tokitan zaude orain pala munduan? Normala den moduan ez nago sasoi batean moduan; kolpea, mugimenduak... Igarri egiten da, baina oraindik gerra emateko moduan gaude, eta ilusioz gabiltza.

Telebistan frontoi motzeko partida batzuk eman dituzte, eta ikuskizun ona eskaini izan dute pilotariek. Jokatzeko moduan asko aldatzen da frontoi luzean edo motzean izan. Mugimendu azkarragoak eskatzen ditu frontoi motzak, eta fisikoki hobeto prestatuta egon beharra dago. Luzean hiru-lau pilotakadatan tantoa amaitu daiteke, eta laburrean 15 pilotakada jo behar izaten dira sarritan.

Zeintzuk izan dira zure ibilbideko unerik onenak eta txarrenak? Txarrik ez daukat akorduan. Profesional moduan emandako urte denetan disfrutu dut; batzuetan hobeto arituko nintzen, besteetan ez hain ondo, baina beti ilusio handiz kantxaratu izan naiz. Gustatu zaidan horretan jardun dut.

“Urtea amaitzean erabakiko dut jarraitu ala ez; gorputzak zelan erantzuten didan ikusi gura dut lehenengo”

Gorputzak eutsi artean jarraituko duzu? Urtea amaitzean erabakiko dut gehiago jarraitu ala ez; enpresak jarraitzea eskatu dit, baina gorputzak zelan erantzuten duen ikusi gura dut. Orduan hartuko dut azken erabakia.

Pala asko aldatu da azken urteetan. Materiala asko aldatu da. Lehenago gaur egun baino pilota biziagoak erabiltzen ziren. Horrek jokamoldean ere eragiten du, eta egokitu beharra dago.

Zer egoeratan dago gaur egun pala? Zortzi hilabetez jokatu barik egon gara, Deportivotik Miribillako frontoirako aldatketagatik. Laster bueltatuko gara, eta partida asko jokatzea itxaroten dugu.

Kontzertuak, eskualdeko bertsolariak eta DJ-ak

Irailaren 10ean, 23:00etan, Gazte Lekuan: Itziarren Semeak, Zirkinik Bez eta BEK taldeen kontzertuak

Jaiak abiatzeko, gaur bertan izango da egitarauak jasotzen dituen kontzertuetako lehenengoa; 22:30ean hasita, Gazte Lekuan izango da zuzeneko musika emanaldia.

Irailaren 10ean, jaien bigarren asteburuan, berriz, dantzarako doinuakin da hitzordua: Itziarren Semeak mungiarrek, Zirkinik Bez zornotzarrak eta BEK taldea izango dira entzungai. Ondoren, dantzarako zein gaua luzatzeko, DJ-ek ipiniko dute musika.

Dantzazaleentzako bestelako doinuak ere jasotzen ditu jai egitarauak: irailaren 4an, esaterako, Lotxo eta bere taldearen emanaldia izango da, eta Aiora eta Ane

trikitilariak gozatuko dute irailaren 11ko jubilatuen bazkariaren ostekoa.

Bestetik, Durangaldeko bertsolarien saioak ere izango dira Izurtzako 2011ko jaietan entzungai: Eneko Abasolok eta Onintza Enbeitak irailaren 4an jardungo dute, eta Miren Amurizak eta Beñat Ugartetxeak jardungo dute irailaren 11n.

Egun bitan izango dira Izurtzako jaietan bertsoak entzungai; irailaren 4an eta 11n

FOSROC
 Productos químicos para la construcción
 Eraikuntzarako gai kimikoak
 www.fosroc.com
 ☎ 902 22 22 44
 Gasteiz Bidea, 11 - Izurtza

Launa plus
 Ondua

Launa
 Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com
 info@bodegaslauna.com
 Tel.: 94 682 41 08

IZURTZAKO HERRIKO TABERNA

BEREZITASUNA:
 Urdaiazpikoa - Solomo iberikoa
 Gazta - Salamancako txorizoa

Tel.: 94 620 20 24 - IZURTZA

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Sei hankako mahaia



Urdaspal Bolinaga Bildu

Bilduko gara Ferixa Nausikoetan

Lainopean eta umel, konturatu orduko, badoakigu uda, baina alde aurretik Ferixa Nausikoak topera gozatzeko makinaria olioztatuta daukagu. Uztailean zein abuztuan, lainoak izan ditugu lagun eta meteorologiaren aurka alferrik saiaturako gara. Baina izan dira uda honetan, Euskal Herriko zein Elorrioko zeru politikoan laino beltzak ipini guran ibili direnak, edozein aitzakia erabili dutenak behin eta berriz Bildu begipuntuan jartzeko. Edozein adierazpen, keinu, argazki edo baita jaietako kontzertuen programazioak ere zarata ateratzeko baliatu dituzte, eta nola ez, hamaikagarrenez Bilduri kontuak eskatzeko. Elorrioren ere, ez dute asko itxaron, eta udaleko batzordeetako aktak fiskaltzara bidali eta gure zinegotziak kriminalizatzen hasiak dira.

Horren guztiaren aurrean Bilduk zentzuzko eta erantzukizuneko jarrera hartu du, garbi eduki dugu ez dugula udako kulebroirik elikatuko, eta ez gaituzte sartu nahi izan gaituzten jokoan harrapatu. Bildu bidea egiten ari delako eta bide honetara gero eta jende gehiago batzen joango dela aurikusten dutelako daude urduri, baina ez gaituzte gu urdurituko. Badakigu zertarako gauden hemen, eta baita zeintzuk diren Euskal Herriarekin zein bere herritarrekin hartu ditugun konpromisoak.

Erronka potoloz eta eginkizun ilusionagarritz beteta dator kurtso berria, bai, baina alde aurretik, Ferixa Nausiko jaietako atera eta egunez zein gauez fenomeno pasatzea tokatzen zaigu elorriarroi. Euskal Herriko jaietan ikusi dugu batzuk eta besteek izan duten jarrera, eta herri honetako aurrekariak ikusita, ez da harrizkoa izango batzuk gure herria zirku mediatiko bihurtzeko tentazioa izatea, nor bere karrera politikoari bulzada bat eman eta zabaldu den aro berria sabotatzeko asmatan. Ba gu ez gaituzte lokaztutako jokaleku horietan aurkituko. Badugu jokaleku hoberik, eta norekin jokatu ere bai. Ez daukagu inongo probokaziotan erortzeko asmo txikienera. Gurea, jarrera parte-hartzailea eta eraikitzailea izango da, gure ekinbide politikoan den bezala, jaietako ekintza eta guneetan ere bai, eta herritar denei jarrera berarekin parte hartzeko deia luzatu gura diegu. Saltsa denetan egongo gara: danborradan, sukalkian, kontzertuetan, jolasetan, ferian, dantzan, antolatzen, saltoka, berbetan, tragoak ataritzen zein edaten...

Horrez gain, gure eskaintzatxo egin gura diegu jaietako esparru berri bat irekiko dugu taxien geltokia dagoen kalean, jan-edanen eskaintza zabalduz.

Beno, elorriarrok, ez ahaztu jaietan egoterik ez daukatenak eta ondo-ondo pasatu!

Gora Ferixa Nausikoak! Gora Elorrio!

Elorrioko Bildu

Agur eta ohore

Agurra, gauza bitarako balio daben ekintza ei da: despedidarako eta ondo etorria emoteko. "Agur, hurrengora arte" esan ohi dogu sarri, beste batean ere ikusteko asmoarekin. Baina, aspaldion, "agur, betira arte" esaten aritu naiz gehiegitan. Eta horrek triste itzi nau.

Apirilean Rafa Zugaza-Artaza joan zitzaigun. Maiatzean, bere arreba Maritere. Eta abuztuan, Doroteo Biritxinaga eta Jabi Gerediaga. Nik dakidala danak gizon-onak eta andra-ona kontsideretako modukoak; langileak neurri barik, gizarte eragileak bakoitza bere lekutik, pertsona konprometituak arlo ezberdinetan, auzolanean autokuak bata zein bestea, ordu asko emandakoak gizarteari. Gaztetatik hasita, kultura dala, kirola dala edo herri basoen defentsa edo zaintzan. Iurretaren desanexioan batzuk, auzotarren ongi izateaz besteak edo denbora libre alaitzeko lanetan buru-belarri arituak ere.

Jaio, hazi eta bizi. Edozeinek legez. Baina bizi, inorentzat ordu asko emanda. Giza bakoitzak beretzakoa egin beharra dauka, baina batzuk berea eta inorena egiteko ere gai izaten dira, eta hauek halakoxeak ziren. Rafa, futbol sailean eta herrikiroletan. Maritere, kultur arloan: antzerkia, inauteria, jaiak... Doroteok, kofradiak zaindu eta Orozketa bihotzean, zer ez du ba egin auzotarren alde. Azkena, kofradiako eskudoa, amaitu barik itzi dau, baina jaietan ikusi neban eta ederra geratu da. Jabiri buruz zer esan! Ugaria zen gizona: kirola, jaiak, kofradiak, politika. Eta zer ez, perejil hutsa zen. Bata zein beste, herri mailako gizakiak.

Bakoitzak bere etxean utziko zuen hutsunerik handiena, baina baita herritarren artean ere. Sarritan, ondoan dituzun artean ez zara konturatzen zenbat balio daben, zenbat estimatzen dituzun eta joandakoan zelako zuloa geratzen den. Laster, irailaren bigarren domekan, Laixiarzelain alkartuko gara Iurreta osotzen dogun sei kofradietatik etorritakook, eta zazpigarreneko gure lagunak ere bai. Rafa, Maritere, Doroteo eta Jabi ez dira "en persona" egongo, baina gogoratuko ditugu. Agur eta ohore zuei!

Hasieran esan dot, "Agur!" esaten dogunean, ongietorria emoteko ere izaten dala: "Agur, Jaunak! Agur t' erdi andere!", bada, joanak gogoan, "esperantzari leiho bat, ireki omen diote" kantuk dinoenaz pentsatu dot, eta ohartu naz auzoetako jaietan ume piloak alkartu dirala aurretik ere, eta abuztuak Doroteo eta Jabi eroan badauz be, beste bi ekarri deuskuzela: June eta Ekhi. Irailean etorri dela Malen, eta urrian jaioko dela Hur, Ametz eta Sugar eta beste askogaz herri barri bat osotzeko. Agur eta ohore joandakoei! Agur eta ongi etorri txikiok ere! Laixiarren alkartuko gara.

Kristina Mardaras - Iurreta

Jai herrikoien alde

Iritsi da iraila eta berarekin lane-ra buelta, opor bueltako estresa... baita, zorionez, durangar guztioi hainbeste ilusio eragiten digun beste kontu bat ere: Sanfaustoen inguruko prestaketak.

Prestaketa guztietan bezala, mila galdera eta kezka sortuko zaizkigu; zer kontzertu antolatuko dituzte? Zer barraka ekarriko dituzte? Adin tarte guztietarako ekintzak antolatuko dituzte? Txosnak non jarriko dituzte?


Durangon bi jai ospatzen dira oraindik. Udalak herriarekiko duen deskonexioa agerian da

Durangon, gogoratu behar baita bi jai ospatzen direla oraindik; bata udalak antolatzen duena eta bestea txosna batzordeak antolatzen duena. Horrek agerian uzten du udalak herriarekiko duen deskonexioa. Deskonexio hau dela-eta, aurretik txosnak ez jartzeko arriskuaren aurrean gauden. Nik egoera hau ez dut ulertzen, nire ustez udala herriaren zerbitzura egon behar baita; hau da, bertako herritarren beharrezan entzun eta asetzea izan behar du helburu. Hau zoritxarrez, oraindik ez da ematen; gobernu taldeak bere kabuz hartzen ditu erabakiak.

Txosnek sortzen dutena ikaragarria da, ikustea baino ez dago berauen muntaketa eta prestaketan sortzen den giroa. Durangoko eragile oso desberdinak elkarrekin lanean, denon artean laguntzen eta denak alai. Hau da, herri bat elkarrekin gogotsu lanean.

Ez litzateke hobe jai bateratu bat, non txosna batzordeak udaleko jai batzordean parte hartu eta horrela herritarrok jai egitaraua antolatu? Posible da! Udala herritar denona baita, sinetsi baino ez dugu egin behar!

Ez litzateke hobe jai bateratu bat? Posible da. Sinetsi baino ez dugu egin behar!



Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira. **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko irailaren 2a - 10. urtea - 426 zk.

Laguntzailea: BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako udal guztiak:

ABADIÑO	ATXONDO	BERRIZ	DURANGO	ELORRIO	GARAI
IURRETA	IZURTZA	MALLABIA	MANARIA	OTXANDIO	ZALDIBAR

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua: Joseba Derteano.

Administrazio burua: Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Aritz Maldonado.


Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



**EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK**





nausikakak 2011



Elorrioko udala

ELORRIO

AKEBASO HARATEGIA ALTUNA OPARIAK AMESTI OINETAKOAK AMESTI BITXIDENDA
ARATZ BITXIDENDA ARGIÑETA HIGIEZINEN AGENTZIA ARRINDA ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
BI-KALE BAR BIKI-BAT CEUTA TABERNA CHEYMA DITARE EGUZKILUR
ELORRIO FEDEROPTIKOAK ERAZ ERREKA SPORT ESTELA ILEAPAINDEGIA EUGENIO ITURGINTZA
GARBIÑE MERTZERIA GUERGUE ARRAINDEGIA GURIA IBARRA TABERNA IGARTUA KIROLAK
INES MODA ITURRICASTILLO OINETAKOAK IZARA IZARGI BIDAIK JAPI JUAN BERISTAIN
KAMIKOPIAK KATXARRO KURUTZONDO IGELTSEROTZA LEJARAZU ERRETEGIA
LUCY ILEAPAINDEGIA MENDRAKA ASESORIA MAIRU DIETETIKA MAPFRE MARGOA ARGAZKIAK
MATZORRI OKINDEGIA MARI-MAR MERTZERIA MONTSE LURRINDEGIA NIRE XAHUTEGI EDERRA
ORBELA ORRAZI ILEAPAINDEGIA PARRA KAFE TABERNA PEDRO SAGASTIZABAL
PELLO GOZOTEGIA PORTALEKU SOLOZABAL ALTZARI-DENDA TANGER TILIN-TALAN
TOKI ONA TRUJILLO ARGAZKIAK TXIRRI TABERNA TXOKOLAT TXUKUNA UREBERRI
UZTARGI ZAINDU ALBAITARITZA KLINIKA ZUBIERTZ BODEGA

Gora Ferixa Nausikoak 2011!



**ELORRIOKO
AUKERA AZOKA**
Irailaren 2an
09:00etatik 20:00etara
Herriko plazan

eme

elorrioko merkatarien elkarte



Futbolarien indarrak lehertuko du jaia

Neskek botako dute txupina, mutilen lekukoa hartuz

El orrio futbol taldeko jokalaria izango dira jaietako pregoilari, bigarren urtez jarraian; mutilen lekukoa hartuta, aurtengoan neskek izango dira txupina jaurtitzear arduratuko direnak.

2010-2011 denboraldia bikaina izan da futbol taldeentzat; gizonen zein emakumeen lehenengo taldeek maila bat gorago igotzea lortu dute. Bigarrenek liga irabazi dute, gainera.

Atzo egin zuten jaien aurkezpen prentsaurrekoa Ana Otadui alkateak eta Fernando

Azkarate kultura zinegotziak. 165.000 euroko aurrekontua dute jaiek, eta, besteak beste, 22 musika emanaldi eratu dituzte. Animazioak ere garrantzia hartuko du, 11 ekitaldigaz. Azaldu dutenez, plazan bakarrik ez, Urarkan eta Aldatzekuan ere izango dira ekintzak; plazatik herri osora zabaldu gura dute jai-giroa. Bestalde, zelan ez, pisu handiko egunak izango dira feria eguna, koadrilena eta sukalkiarena. Otadui eta Azkaratek herritarrei parte-hartzeko deialdia egin diete, beti ere elkarrenganako errespetuz eta gizatasunez; emakumeenganako erasoen inguruan indar handiz egin dute berba. Horretaz gainera, "Elorrio jai baketsuen erreferentzia izan dadila" gura dute, "ezarrita dagoen irudi distorsionatua aldatzeko".

Badatoz Ferixa Nausikoak, ekitaldiz beterik, herritarren jai gosea asetzeko helburuz.

165.000 euroko aurrekontua dute jaiek; plazan bakarrik ez, Urarkan eta Aldatzekuan ere izango dira ekintzak.



IRAILAK 2, Barikua, Gazte Eguna

- 11:00-13:00• Herriko plazan: Umeentzako tailerrak.
- 09:30-20:00• Herriko plazan: Aukera Azoka. EME
- Eguedian• Bildots jana. Ondoren, bideo proiektzioa
- Arratsaldean• Poteoa jokoekin.
- 19:00• Plazako frontoian: Pilota partidak. Berrio-Otxoa pilota eskola
- 20:00• Txosnen irekiera.
- 23:00• Txosnagunean: Gose eta Zea Mays.
- 00:00• Gaztetxean: Elektrominimal Friday.

IRAILAK 3, Zapatua

- 11:00/13:00• Plazan hasi eta Elizburun amaitu: Emakumeen Euskaldun txirrindulari txapelketa. Elorriko Txirrindulari Elkarte
- 16:30/19:00• Frontoian, Urarkan eta Kanpokalen: Umeentzako jolas parkea.
- 16:30• Errugbi zelaian: Jaietako errugbi partida: Getxo-Ordizia. ERT.
- 18:30• Kalejira: Bizkaiko dultzaineroak.
- 19:00• Herriko plazan: Ordiziako buruhandiak eta erraldoiak.
- 20:00• Herriko plazan: Txupinazoa Elorrio CD-ko nesken eskutik
- 23:00• Herriko plazan: Danborrada
- 23:00• Gaztetxean: Kilauea, Bugatti eta Foxy Leires (Jimmi Hendrixen bertsioak).
- 00:20• Urarkan: Suzko zezena.
- 00:30• Urarkan: Las Morenas mariatxia.

IRAILAK 4, Domeka Ferixa Eguna

- 10:00• Feriagunean: XXVIII. Abere eta Nekazaritza Azoka. Animatu eta zatoz baserritar jantzita!
- Goizean• Kalejira Elorriko txistulariekin.

- 17:30• H. Azkarate frontoian: Esku pilota partidak. Berrio-Otxoa pilota eskola.
- 19:00• Herriko plazan: Munduko dantzak eta musikak. Nativos de Macondo (Kolonbia).
- 20:00• Aldatzekuan: Bilbainadak eta habanerak.
- 22:30• Plazan: Kale animazioa. Deabru Beltzak-en "The Wolves"
- 23:30• Plazan: Orkestra Ikuskizuna (Jamaika)

IRAILAK 5, Astelehena Koadrilen Eguna

- 14:00• Aldatzekuan: Koadrilen arteko bazkaria
- 16:30• Aldatzekuan: Los Fonotanegros-en "Show cubano"
- 17:30• Urarkan: "Gaur jaia" umeendako ikuskizuna
- 18:00• Koadrilen jaitsiera. El Puntillo Canalla txarangagaz
- 19:00• Herriko plazan: Koadrilen arteko jokoak, Abiba DJ-agaz.
- 22:45• Herriko plazan: Suzko zezena. Errugbi taldea
- 23:30• Herriko plazan: Abiba disko festa
- 20:30-22:30 / 23:30-00:30• Txosnagunean: Jo ta Hanka (erromeria)

IRAILAK 6, Martitzena

- 11:30/17:00• Jolas parkea. Arriola kalean (ume txikiak), Urarkan

Baserriko jeneroa Ferialekuan salgai

Hogeita zortzigarren nekazari eta abere azoka izango da

Ferixa Nausikoen ardatza da Nekazari eta Abere Azoka; aurten azoka ospatuko den hogeita zortzigarren biderra izango da. Beste urte batez, feriagunea herriko zein inguruetako nekazarien ortuetako produktuen erakusleho izango da; abeltzainek, ostera, animalia eskaintza zabala edukiko dute, urtero legez.

Goizeko 10:00etan hasiko da Nekazari eta Abere Azoka. Baserritarrez jantzita joateko deia egin dute

Ekimena girotzeko asmoagaz, antolatzailleek baserritarrez jantzita hurbiltzeko deia luzatu dute. Horrez gainera, Elorrioko txistulariak kaleetan zehar arituko dira.



Jaiak elkarregaz hasteko asmoa dute gazteek

Irailaren 2an ospatuko da aurtengo Gazte Eguna

Aurten ere, Ferixa Nausikoen bere Gazte Eguna izango dute; egunean barik, irailaren 2an, barikuan, ospatuko da. Ahalik eta gazte jende gehien batzeko asmoagaz aldatu dute eguna. Aurreko urteetako jende kopurua batzea da antolatzaileen helburua. Hauek adierazitakoaren arabera, "50-100 gazte inguru batzea da gure helburua".

Goizean goizetik hasita, ekimen sorta aberatsa antolatu dute elorriarrentzat. Goizeko 11:00etan umeentzako tailerrak ipiniko dituzte plazan. Jaietako indartsu ekiteko sabela betetzea baino hoberik ez dago; horren jakitun, bildotsa

jango dute gazteek bazkaritan. Gero, herriko gazteen interes eta arazoei buruzko adierazpenak jasotzen dituen bideoa proiektatuko dute. Bideoa amaituta, poteoa eta jokoak egingo dituzte tabernetan zehar; ondoren, 20:00etan, txosnak zabalduko dituzte.

Bazkalostean Elorrioko gazteen interes eta arazoei buruzko adierazpenak jasotzen dituen bideoa proiektatuko dute



Carlos Villaescusa - Aitor Igarza



URBEGI S.L.

- Bainugelako altzari eta komun-ontziak erakusgai

- Zaharberitze eta mantenu lanak



Claudio Gallastegi, 2 • Tel.: 94 682 04 99 • Faxa: 94 658 28 94 • 48230 ELORRIO (Bizkaia)



Peluqueria

LUCY

Itzapaindegia

BELEN Estelika

Ibaiondo, 11 Tf: 94 682 05 03



Zea Mays eta Gose taldeak kartelburu

Bi taldeek kontzertua eskainiko dute, gaur, 23:00etan

Talde ezagunen kontzertuekin berotuko dituzte motorrak Elorriko jaietan. Zea Maysen *Era* diskoa aurkeztuko du, eta Gosek tekno eta trikiti doinuak ekarriko ditu, 23:00etan, txosnagunera.

Elektrominimal Friday taldeagaz hitzordua, 00:00etan, Gaztetxean jarri dute.

Kilauea, Bugatti eta Foxy Leires taldeak zapatuan, 23:00etan, izango dira Gaztetxean entzungai. Kilauea Elorriko entsugu lokaletan sortutako taldea da, eta atera berri duten lehenengo diskoa aurkeztuko dute. Foxy Leiresek Jimmi Hendrixen bertsioekin betetako errepertorioa eskainiko du.

Jo ta Hanka taldearen erromeria doinuek astelehen iluntzea eta gaua girotuko dute, txosnagunera. Herriko rock taldeak, berriz,

Kilauea, Bugatti eta Foxy Leires zapatuan eta herriko rock taldeak egunean izango dira entzungai, Gaztetxean

egunean 20:30ean Gaztetxean antolatuko duten kontzertuan izango dira.

Hip hop erritmoak gogoko dituztenek At Versaris taldeagaz izango dute zita, irailaren 9an 23:00etan, Gaztetxean. Ondoren Gozogoza taldeak erromeria giroa jarriko du.

Iheskide talde elorriarra ohiko formazioagaz itzuliko da txosnaguneko taula gainera, irailaren 10ean 23:00etan, txosnagunera. Ze Esatek gipuzkoarren emanaldia izango da ondoren.



(umeak), frontoian (gaztetxoak)

•13:00• Plazako frontoian:

Tatxin eta Tatxan

•18:00• Aldatzekuan: Betiko jokoen olinpiadak eta igel jokoak.

•18:00• Herriko plazan: Porrusalda erromeria.

•19:00• Plazan: Euskal karaokea

•17:30-19:30• Elizalden: Futbol partidak. Elorrio CD

•20:00• Plazako frontoian: Munduko musika

IRAILAK 7, Eguaztena

•16:30• Herriko plazan: Umeentzako tailerrak. Txintxirri ikastola.

•17:00• Herrigunera: Ginkana. Elorriko Txirrindulari Elkarte.

•18:00• Herriko plazan: Txokolatada. Txintxirri ikastola.

•19:00• Urarkan: Umeentzako olinpiadak.

IRAILAK 8, Eguena

•19:00• Aldatzekuan: Dantzaldia eta DJ Festa. Arantza Show.

•22:00• Probalekuan:

XLVII. Idi-proba Txapelketa

•20:30• Gaztetxean: Elorriko rock taldeak.

IRAILAK 9, Barikua

•12:00• Sortzez Garbiaren basilikan, meza hildako jubilatuen oroimenez

•13:00• Aldatzekuan: Elorriko jubilatuentzat piskolabisa

Miren
 - MASAJEAK
 - AURPEGIKO GARBIKETA
 - GORPUTZ TRATAMENDUAK
 - MANIKURA ETA PEDIKURA
 - DEPILAZIOA
 - MAKILAJEA
 - LASERRA
 Labakua, 5 48230 ELORRIO Tel: 946 584 600 estetika zentroa

Durangaldeko usaina ezin dizugu transmititu, baina Durangaldea entzun, ukitu eta ikusteko, ...
www.anboto.org

HONDA
STIHL
 pasquali
SAME
 BCS
CARON
 VIKING

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK Salmenta eta konponketa
 Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia)
 Tel-Faxa: 94 623 18 03

- 16:00• Jolas parkea. Arriola kalean (ume txikiak), Urarkan (umeak), frontoian (gaztetxoak)
- 19:30• Urarkan: Umeentzat animazioa. Gramola
- 19:00• Aldatzekuan: Erromeria eta dantza txapelketa. El Charro y las Chamaquitas mariatxia.
- 21:00• Arriolan: Opera flamenkoa. Durangoko Udal Banda-Alicia Gallardo dantza eskola: De Norte a Sur
- 22:00• Probalekuan: XLVII. Idi-proba Txapelketa
- 22:30• Herriko plazan: Suzko zezena. Elorrio CD.
- 23:00• Urarkan: Berbena. Orquesta Scana.
- 23:00• Gaztetxean: At Versaris (Hip Hop) eta Gozogozo (erromeria).

IRAILAK 10, Zapatua Sukalki Eguna

- 08:00• Aldatzekuan: Sukalki Eguna. Etorri mozorrotuta! Izen-ematea eta erreserbak. Iturrizoro elkarteareta.
- 11:30/17:00• Jolas parkea. Arriola kalean (ume txikiak), Urarkan (umeak), frontoian (gaztetxoak)
- 16:30-17:30• Kiroldegian: Futbito partidak. Buzkantz futbol kirol elkarte
- 17:00• Aldatzekuan: Erromeria. Bentazarreko mutilak
- 18:00• Herriko plazan: Txokolatada. La Esperanza nagusien elkarte
- 19:00• Kantaldi ibilitaria Bentazarreko mutilak

Koadrilak, arroza, jokoak eta jaia

Egun osoko jai-egitaraua aurten ere Koadrilen Egunean

Elorrioren jai eguna izaten da jaietako astelehena. Bertan behar egiten ez dutenak ere Koadrilen Eguna jai hartzen ahalegintzen dira. Aurten ere, koadrilek Aldatzekuan izango dute hitzordua, bazkaria prestatzeko; goizeko 9:00etan hasiko dira mahaiak eta jesarlekuak banatzen. Arroza izaten da normalean egun horretako menua, eta bazkariaren bueltan batzen dira, umorez eta kolorezko kamisetaz jantzita, koadrilak.

Aldatzekuan goizeko 9:00etan hasiko dira mahaiak eta jesarlekuak banatzen koadrilen bazkarirako

Bazkalostean show kubatarra izango dute koadrilek Fonotanegros taldeagaz, eta 18:00ak aldera plazara bajatuko dira El Puntillo Canalla txarangagaz. Plazan, koadrilen arteko jokoak 19:00ak inguruan hasiko dira. Iluntzerako jai giroan sartuta egongo dira guztiak. Txosnetan Jo ta Hanka taldearen erromeria egongo da, eta plazan Disko Festa. Indarrak geldituz gero, dantzan amaitzeko eguna izango da koadrilen.



berriozabaleta
Iturgintza • Berokuntza
gremioen koordinaketa
jose miguel acedo
mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55
berriozabaleta@yahoo.es
48230 Elorrio (Bizkaia)

BANAKETAK
MIOTA S.L.
eva INSALUS KAS PEPSI RAM San Miguel
Miota, 6 48230 ELORRIO Tel.: 94 623 18 92

Ferixa Nausikoak 2011



parra@parrataberna.com www.parrataberna.com

CAFETERIA
IRISARRI
"Enri"

Tel.: 94 658 31 19 Elorrio (Bizkaia)



PORTALEKUA

**EUSKAL PRESOK
PORTALEKURA**



Taberna

GOSARIAK - PINTXOAK - BOKATAK

BERRIOTHOA 43, 48230 ELORRIO - Tel.94 658 34 65

busti zaituz jai xetan!

Karrozek kaleak beteko dituzte

Ardoa Barrura txarangak girotuko du karroza jaitsiera

- 18:30• Karroza jaitsiera. Ardoa Barrura txarangaz
- 18:45• Herriko plazan: DJ Oihan Vega (Euskadi Gaztea)
- 22:00• Probalekuan: XLVII. Idi-proba Txapelketa
- 22:30• Plazan: Kale animazioa suaz. Cabalfoc
- 23:00• Txosnagunean: Iheskide eta Ze Esatek.
- 23:30• Urarkan: Berbena. Grupo Aracel

IRAILAK 11, Domeka

- Goizean• Herriko plazan: Elkartasun Jaialdia. Kainabera GKE
- 13:00• Herriko plazan: Herri-kirolak. Harri-jasotzaileak: Iñaki eta Inaxio Perurena.
- Aizkolariak: Atutxa II - Floren Nazabal / Arrospide - Donato Larretxea. Aurkezlea: Gabixola
- 17:00• Herriko plazan: Umeen danborrada
- 18:30• Herriko plazan, bertso saioa: Sustrai Colina, Oihana Bartra, Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea. Gai jartzailea: Maite Berriozabal
- 19:30• Herriko plazan: Dixieman Band

IRAILAK 12, Astelehena

- 22:00• Probalekuan: XLVII. Idi-proba Txapelketako sari banaketa.



Ofizialki, iazkoa izan zen karroza jaitsiera egin zen lehenengo biderra. Hala ere, aurretik ere ikusi zitezkeen Elorrioko kaleetan zehar karrozak hara eta hona; mozorroen gehigarri moduan, hainbat koadrilak inprobisaturiko ekimenak izan ohi ziren.

Aurtengo Ferixa Nausikoetan, iazkoetan legez, Sukalki Egunagaz batera ospatuko dute mozorro eta karrozen jaitsiera; hau da, irailaren 10ean. Aurten, ostera, aldeketak bat egongo da, ez da-eta lehiaketa izango. Ekimenak iaz izandako harrera ikusita, jaitsiera mantentzea baina lehiaketa baztertzearabaki du udalak.

Parte-hartzea sustatzeko, Sukalki Eguneko bazkarira mozorroturik joateko deia zabaldu dute. Karroza jaitsiera arratsaldeko 18:30ean abiatuko da; Ardoa Barrura txarangaren laguntza izango dute kalejirara hurreratzen direnek. Jaiak gehiago animatu eta girotuko ditu ekimen deigarri honek, ziur.

Hainbat koadrilak karrozak egin ohi ditu mozorroen gehigarri moduan; ofizialki iaz egin zen karroza jaitsiera lehenengoz

Kirol eskaintza oparoa jaietan

Txupina jaurtitzeko ardura izateaz gainera, bestelako protagonismoa ere izango du Elorrioko futbol taldeak; irailaren 6rako, futbol partida triangularra antolatu dute.

Futbolaz gainera, bestelako eskaintza ere egongo da, ordea. Irailaren 3an, adibidez, errugbi partida jokatuko dute punta-puntako bi euskal taldek: Getxok eta Ordiziak, hain

zuzen ere. Egun berean, txirrindularitzaz gozatzeko aukera ere egongo da; 11:00etan abiatuko da lasterketa. Urtero legez, pilota partidak ere egongo dira ikusgai Ferixa Nausikoetan; irailaren 2an eta 4an jokatuko dira, H. Azkarate pilotalekuan. Horrez gainera, areto futbol partidak antolatu dituzte irailaren 10erako; 16:30ean hasiko dira.

KAMIKOPIAK
KOPISTEGIA

Fotokopiak • Enkuadernazioak • Plotterak
Planoak • Papergintza • Inprimaketa digitala

Berriotxo kalea 9 • Tel.-Faxa 94 623 14 31 • 48230 ELORRIO
• kamikopiak@kamikopiak.com •

Erika 20
arkitektura

Silvia Urrutxi Arkarazo

Tel 94 623 18 47
Erreka kalea 20, 2. A - Elorrio

Jatorria Elgetan duen arren, elorriarrek euren egin duten ekimena da danborrada. 1968. urtean ospatu zen danborrada lehenengoz Elorrion, eta, orduetik garaia aldatu diren arren, urtez urte makilak hartu dituzte herritarrek.

Urtero legez Mila Arroyok danborrada antolatzen jardun du. Ohiturari eutsiz, jaiak hasi aurreko astelehenean hasiko dituzte entseguak; 100-120 partaide batzea itxaroten du Arroyok.

1968an egin zuten lehen danborrada; jatorria Elgetan badu ere, euren egin dute elorriarrek

Hainbat belaunalditako danbor-jolek egun bat baino gehiagoan astinduko dituzte makilak. Nagusienek, ohiturak dioen legez, txupinazoaren egunean egingo dute emanaldia; irailaren 3an, gaueko 23:00etan. Gazteenek, berriz, jaietako azken egunean, bigarren domekan, eskainiko dute emanaldia abesti tradizional zein berriagoekin. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da hori.

Danbor hotsaren burrunbarako gertu

Bi emanaldi egingo dituzte: 3an helduena eta 11n gazteena



Elkartasuna, jaietan ere agerian

Elorrioko kultura aniztasuna ezagutzera eman gura dute

Azken urteetan legez, elkartasunak bere lekua izango du Elorrioko Ferixa Nausikoetan. Jaiak agurtzeko, ekimen berezia antolatu du Kainaberak irailaren 11n, goizerako. Kainabera elkartearen proiektuen berri emateaz gainera, hainbat nazio eta herritako arazo berri ematen da, herritarrak sentibilizatu guran.

2011ko Ferixa Nausikoetan, Elorrio osatzen duten kultura ugariak izango dira protagonista; *Elorriko kulturak dasta ditzagun-Sabores, olores y colores de Elorrio* lemapean, elkartasun jaialdia ospatuko dute aurten ere herriko plaza inguruetan.

Kainabera elkarte 1996an sortu zen, eta orduetik hainbat ekimen antolatu dituzte, sentibilizazioaren arloan beti ere.



Bertso saioa plazako frontoian

Urtero legez, Ferixa Nausiko jai egitarauak bertsolarien saioa dakarkigu. Sustrai Colina eta Oihane Bartragaz batera, Durangaldeko bertsolari bi igoko dira Elorrioko taula gainera: Beñat Ugartexea mallabitarra eta Miren Amuriza berriztarra. Bertsolarien ekitaldia irailaren 11n izango da, arratsaldeko 18:30ean, plazako frontoian.

Lau bertsolarien gaiak bideratuko dituen ere ingurukoa izango da, Durangaldeko hainbat saiotan gai-jartzaille jardun izan duen Maite Berriozabal berriztar gaztea.

AZKARGI GARBIKETAK

Bulego eta Industri mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar

Goieta, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 94 682 09 91

Argiñeta

Zure konfiantzazko inbiliaria

ARGIÑETAK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE!

Urarka, 1 • Elorrio • Tel: 94 682 00 41 • Fax: 94 623 16 30
argineta@euskalnet.net • www.argineta.net

“Lehiaketagaz herritarron parte-hartzea sustatzen da”

Ferixa Nausiko jaietako izena ematen dien azoka omendu gura izan du Libe Mimentzak ‘Errezeta onena’ lanagaz; udazkeneko ortuariak dira kartelego protagonista

Libe Mimentzaren lanak iragarriko ditu aurtengo Ferixa Nausikoak; hirugarren saiakeran lortu du 23 urteko gazte honek kartel lehiaketa irabaztea. Diseinuaz gainera, sorkuntza atsegin du ogibidez kazetaria den elorriar honek.

Zelan hartu duzu lehiaketaren epaia? Pozik. Apur bat bada ere, denoi gustatzen zaigu irabaztea, ezta? Azken finean, horrelako lehiaketa batera aurkezten zarenean beti izaten duzu irabazteko itxaropena, txikia bada ere. Pozik hartu dut, itxaroten ez nuen arren.

“Aurkeztu diren lanetatik, nirea teknikoki onenetakoa dela uste dut. Ikuspuntuak ere garrantzia izan duela deritzot”

Zer islatu gura izan duzu kartelagaz? Kartela egiten hasi nintzenean, galbahe moduko batetik pasatu nituen ideiak. Azken urteetako karteletan zer ezaugarri nabarmendu diren eta zeintzuk ez pentsatzen hasi nintzen, eta gauza batez konturatu nintzen: jaietako azokak ematen dien arren, azken urteetako lanetan ez da hori nabarmendu, eta hori gertatu denean, ganadua azpimarratu da, ortuariak albo batera utziz. Horregatik, ortuariak erabili ditut letrak egiteko, eta jaietako data jartzeko, prezioa jartzen duten etiketa horietako bat jarri nuen.

Zergatik uste duzu aukeratu dutela zure lana? Elorrioren diseinura dedikatzen den jende mordo dago, baina aurreko urteetan ez bezala, aurten ez dira lehiaketara aurkeztu; horrek eragina izan duela uste dut. Diseinura profesionalki dedikatzen den inor ez da aurkeztu; denak



amateurrak izan gara, eta igarri da. Aurkeztu garenon artean, nire lana teknikoki onenetakoa izan dela uste dut, eta horrez gainera, erabili dudana ikuspuntuak eragina izan duela deritzot.

Lehenengo aldia al da kartel lehiaketara aurkezten zarena? Aurkezten naizen hirugarren aldia izan da; lehenengoa 15-16 urte nituenean izan zen. Eskuz egin genuen lan hura lagun batek eta biok. Iaz ere aurkeztu nintzen lehiaketara; iazko

“15-16 urtegaraz aurkeztu nintzen lehiaketara lehenengoz; eskuz egin genuen lan hura, lagun batek eta biok”

eta aurtengo lanak serioagoak izan dira. Ez naiz diseinura profesionalki dedikatzen, baina beti izan dut gustuko sorkuntza. Adibidez, aurten zortzi bideo lehiaketatan aurkeztu naiz. Margozea eta idaztea ere gustuko ditut.

Zer iruditzen zaizu kartelaren aukeraketa lehiaketa bidezkoa izatea? Oso ondo iruditzen zait. Herritarroi parte hartzeko aukera eskaintzen zaigu horrela, eta jaiak herrikiagoak egiten ditu horrek.

Zer da Elorrioko jaietan zeuri gehien gustatzen zaizuna? Egia esateko, azken urteetan tabernan egin dut lan, eta ezin izan ditut gauza gehiegi egin jaietan. Hala ere, jaiak barraren alde horretan egiteak ere badu bere xarma.

SOLOZABAL
DEKORAZIOA
URARKA, 14-15 • 94 682 03 92 • ELORRIO (BIZKAIA)

izara
Lentzeria eta Dekorazioa
Urarka kalea 3 • Tel.: 94 682 00 53

ORBELA
Lora eta opari denda
94 658 32 94 ELORRIXO


tel.: 94 658 29 96
630 64 35 99
● Nizeto Urkizu 14. behea
● Elorrio (48230) Bizkaia

NUKIEO
lehen indiegia

17 kartel proposamen jaiak iragartzeko

Irailaren 2tik 11ra luzatuko diren Ferixa Nausikoak Libe Mimentza elorriarrak sorturiko *Errezeta Onena* lanak aurkeztuko ditu. Aurkeztu diren 17 lanen artean aukeratu du Mimentzaren lana epaimahaiak; aurten, bigarren urtez, jendearen iritzia aldeztu aurretik jakiteko aukera izan dute.

Guztira, 13 laguneren proposamenak aztertu behar izan dituzte epaimahaiak; hiru gizon eta hamar emakumek aurkeztu dituzte euren sorkuntza lanak. Saritua bakarrik izan arren, orokorrean Ferixa Nausiko jaiak dira irabazten irtetzen direnak; Zorionak parte-hartzaile guztiei!



Elizburu kalea, 46-48
 Tel.: 94 682 10 79
 Tel./Fax: 94 682 00 50
 48230 ELORRIO
 (Bizkaia)

**ALBAÑILERIA
 KURUTZONDO s.l.**

Galdaragintza

EZAGUN, S.L.

Oidor Berriozabalbeitia, 10
 Tel.: 94 658 45 47
 Fax: 94 658 28 88
 48230 ELORRIO (Bizkaia)

ELORRIO

Pisuak salgai: 21 etxebizitzako proiektuan,

- 1,2 edo 3 gelakoak, ganbararekin.
- Garaje itxia, ate mekanizatuarekin.



5
gelditzen
dira

Bi bizitzako adosatuak:

- Partzela eta garajearekin.

oraindik
aukera onak!



- **Obraren planoak webgunean ikusgai.**
- **Isolamenduen kalitatea laborategian bermaturik.**
- **Etorri zaitez ikustera inongo konpromezu barik**



**ELORRION BESTE PROIEKTU BERRI
BAT GARATUKO DUGU LAISTER**

ZARATE  **ELEXPE**
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga, 19 behea • 48215 IURRETA (Bizkaia)

Tel.: **94 681 66 73** • www.zarateyelexpe.com

construcciones@zarateyelexpe.biz

KULTURA >

ARGAZKIGINTZA > LEHIAKETA



koari buruz: Ilargi elkarteko Delfinek animatu nituen parte hartzera, eta joan nintzen. Hartu nuen txartela eta hasi nintzen argazki batzuk ateratzen. Oso-oso urdu-ri hasi nintzen ipintzen; txarto pasatzen nengibilen. Goizeko 11:00ak inguruan erabaki nuen kamera etxera ekartzea eta argazkirikez aurkeztea lehiaketara. Jende artean argazkiak egiten oso nerbioa ipini nintzen.

Lanak aurkeztu dituzun lehenengo urtean irabazi duzu, beraz. Bigarren honetan disfrutatu egin dut, gainera. Urte honetan kameragaz batera eta bestera ibili naiz, eta lasai ibili naiz. Irabazlea neu nintzela esan zidatenean, sorpresa galanta hartu nuen.

“Sorpresa galanta hartu nuen irabazlea neu nintzela esan zidatenean”

“Argazki asko ikusten ditut, argazkilari begirada garatzeko”

lazko maiatzetik dihardu **Jon Iriondo** zaldibartarrak argazkigintza sakonago jorratzen; orduetik dauka Reflex kamera. Bere lana lehiaketara aurkeztu duen lehenengo aldian, Zaldibarko Argazki Rallyko lehenengo saria jaso du. Arlo teknikoa eta begirada gura du garatu Iriondok: “Argazki ederrak ikusi eta egiteko gaitasuna”

Lanak entregatu zenituen ez zenuen saririk itxaroten?

Disfrutatu egin nuen —ez nuen aurreko urtean legez txarto pasatu— eta horregaz pozik nengoen. Ez nuen ezer itxaroten.

Teknika zelan lantzen duzu?

Oinarrizko argazkigintza ikastaroa egin nuen, baina, batez ere, Interneten ibiltzen naiz asko; teknika aldetik ez nekien ezer, eta asko irakurtzen dut. Kamera erosi nuenetik ere, argazki asko ikusten dut Interneten. Argazkilariak begiratzaren jakin behar du; ezerezetik argazki eder bat ateratzeko begiak eta burua prestatu daitezke. Ez dut uste denateknika denik, eta horregatik argazkilari begirada hori landu gura dut batez ere. ■ I.E.

Noiztik zabilta argazkilari?

Ez pentsatu denbora asko daradanik: nire lehenengo Reflex kamera orain urtebete pasatxo erosi nuen. Gogoia beti eduki dut, eta konpaktuagaz egin izan ditut argazkiak. Perretxikoa zalea izan naiz beti, eta perretxikoei argazkiak egitea oso gogoko izan dut.

“Nire lehenengo Reflex kamera orain urtebete pasatxo erosi nuen”

Buruan neuzkan argazkiak kamera konpaktu batekin ezin nituela egin ohartuta erosi nuen nire lehenengo reflexa.

Zer kameragaz diharduzu?

Nikon D90 bat erosi nuen maiatzean. Oso esperientzia gutxi daukat argazkigintzan, analogikarekin

ere ez naiz ibili aurretik. Zaletasun asko eduki izan ditut, eta orain arte ez dut argazkigintzan jarduteko astirik izan.

Zaldibarko Rallyan parte hartu duzun lehenengo aldian da?

Iaz izan zen lehenengo aldian, baina anekdota berezia daukat iaz-

Araztasun handikoak eta ikuspuntu berezitik hartuak

Berrogei argazki egin zituzketen Zaldibarko Argazki Rallyan parte hartu zuten hogeita hamarretik gora argazkizaleek; Ilargi argazki taldeko antolakuntzak emandako

lau gaiei buruzko eta gai librerako sei argazki aurkeztu zituen parte-hartzaile bakoitzak.


Mutiko bat bizikletan eta lore baten makroa aurkeztu zituen

Iriondok modalitate librean; teknikoki zailtasun handia dauka bizikletariarenak. “Zirkuluak; ogia; goitik behera; eta maisuaren etxea” izan ziren antolakuntzak emandako gaiak. Zirkulua gairako, kutxatila baten argazkia aurkeztea erabaki zuen Iriondok; araztasun handiko argazkia da, eta lehiaketaren epaimahaiak ere berezi iritzi zion.

Ogiaren argazkirako, ogia apurru eta makroagaz egin zion argazkia, desenfokea landuz.

Duela gutxi bota duten Zaldibarko maisuen etxeari egin behar zioten beste argazki bat; argazki horregaz ez ei dago Iriondo bate-re konforme: “Nota baxu-baxua izan zuen argazki horrek”.

Irabazi egin zuen Zaldibarko Argazki Rallya, baina. Bere buruagaz oso kritikoa da, eta “orain urtebete ontzat eman nezakeenagaz orain ez nago asebeteta”, diosku.



ARGAZKIGINTZA > LEHIAKETA

Aitor Aulestiarteren 'Kolpez kolpe (bidea egiten)' argazkia irabazle

Berrizko Sanpedro eta Santaisabel jaietako emakumeen parte-hartzea islatzeko argazki lehiaketako sariduna

Aitor Aulestiarte argazkizaleak bidalitako Kolpez kolpe (bidea egiten) izeneko aukeratu du Berrizko Udaleko Berdintasun Saileko batzorde informatzaileak osatutako epaimahaiak argazki lehiaketaren irabazle.

Ekaineko Berrizko Sanpedro eta Santaisabel jaietako emakumeen parte-har-

tzea islatzea zuten lehiaketan parte hartu zuten argazkizaleek egitekoa, eta, antolatzailerik adierazi dutenez, dozena bat lagunek hartu dute lehiaketan parte.

Jaietako frontenis txapelketan parte hartu zuten emakume biren argazkia da epaimahaiak lehiaketaren irabazle hautatu duen *Kolpez kolpe (bidea egiten)* izeneko.

Lehiaketara aurkeztu dituzten beste lanek legez, Aitor Aulestiarte argazkizalearenak ere "tradicionalki bete dituzten rol eta estereotipoak gaindituz, eta andra eta gizonen arteko berdintasuna adieraziz, emakumeek herriko jaietan non eta zertan parte hartzen duten azaltzea" izan du helburu: bere lana saritu du epaimahaiak. ■ I.E.



ANTZERKIA > EMANALDIA

'Jim altxorraren uhartean' umeei zuzenduriko obra

Asteburuan, Eubako jaietan eskainiko du Gorakadak umeentzako obra

Hiru urtetik gorako umeei zuzendurikoa eta kalekoa da Gorakada antzerki taldeak maiztzean Leioako Umore Azokan estreinatu zuen Jim altxorraren uhartean izeneko. Jim Hawkins gaztea da obraren protagonistetako bat, eta altxorraren bila dabilela bidean agertzen zaion John Silver pirata beste bat.

Zuzentzen Jokin Oregi eta txotxongi-
loak manipulatzan Zigor Bilbao eta Naza-

ret Froufe dauzkan obra honen hainbat emanaldi eskaini ditu ekain, uztail eta abuztuan Gorakada taldeak. Irailaren 4an, domekan, Zornotzako Euba auzoko jaietan eskainiko dute antzezlan.

Nobela klasikoaren intriga, abentura eta pertsonaia aberatsak mantentzen ditu asteburuan Zornotzan ikusgai izango den Gorakadaren antzezlan honek. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA



Iñaki Etxezarraga, 'Etxe' Musikaria

Amy Winehouse

Uda hasi zenean erabakita nuen hurrengo iritzi artikulua artista honi buruz izango zela, eta are gehiago bere heriotzaren ondoren.

Bere kontzertu baten, drogek eta alkoholak eraginda, eszenatokia utzi behar izana izan zen lehen albiste tamala. Hori gutxi balitz, programaturik zeuzkan kontzertu guztiak bertan behera gelditu ziren, eta, dirudie-nez, Londresen desitoxikazio zentro batean ingresatu zuten.

Honen ondorioz, gitariko asko soularen azken erregina ikusteko aukera gabe gelditu ginen Bilbao BBK Live. Eta hori gutxi balitz, bi aste geroago hilik agertu zen Londreseko bere etxean.

Askok esan zuten argi zegoela hori gertatuko zela. Baina zer zen argi gertatuko zena? Inork ez zuela ezer egingo artista handi hau zulotik ateratzeko eta hilik agertuko zela?

Zoritxarrez, askotan musikari edo abeslari bikaina izatea ez da nahikoa diskoak saltzeko eta publikoa erakartzeko. Eta Amyk sortu duen mirespen mediatiko ikaragarria onuragarri izan da artista produktu bat bezala ikusten zutenentzat.

Zoritxarrez, askotan musikari edo abeslari bikaina izatea ez da nahikoa diskoak saltzeko eta publikoa erakartzeko

Bere inguruan lagun asko izan ditu lagundu nahian, baina eszenatokia egoera horretan igotzen nork utzi zion? Bere agente edo managerak ezin izan dute ezer egin bere bizia salbatzeko? Edo ez dute ezer egin nahi izan?

Soularen azken erregina joan zaigu, 27 urterekin.

Joplin, Hendrix, Morrison, Cobain... denak adin berarekin.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



IRAILAK 9 22:00etan
EL MUNDO + SATORI
IKER UNDERSOUND & RUBEN COSTAS
GAU ELEKTRONIKOA. 11-13euro.



IRAILAK 15 22:00etan
ANNA CALVI
HEINEKEN MUSIC SELECTOR
KONTZERTUA. Sarrera: 15-20euro.



IRAILAK 16 22:00etan
DISORDERS +
NEVER SURRENDERS + DOCTORS KLUB
KONTZERTUA/AGUR JAIA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

irailaren 23an DENBORALDI

berria!

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz

liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

MUSIKA > FERIXA NAGUSIKO JAIETAN

Zelan joan zen lehenengo diskoaren grabazioa?

Martxoan, lagunaren artean egin genuen. Iditu Records-en grabatu genuen; estudioa alokatuta, eta gure lagun Xaguren eta Kata teknikariaren laguntzarekin. Diseinua ere Ibon Urizar Elorrioko lagunak egin du... Ondoren, Azkarate Estudioetan, Jonan Ordorikarekin egin dugu masterizazioa.

Pozik zaudete lan horren osteko emaitzagaz?

Bai, oso. Masterizazioagaz indar handia hartu dute katek. Disko honetako zazpi kantak 'puntu eta aparte' moduan ulertzen ditugu; azkenaldian jorratzen dihardugun katek aldaketa islatzen dute: punk doinuak apur bat alboratu eta rockean zentratuz.

“Azkenaldian jorratzen dihardugun katek aldaketa islatzen dute: rockean zentratzea”

“Azkarate estudioetan egin dugu masterizazioa, Jonan Ordorikarekin”

Zertan oinarrituta aukeratu zenituzten diskoaren kantak?

Diskoa grabatzea erabaki genuen, bederatzikanta inguru geneuzkan. Gure eboluzioaren erakusle ziren: azkeneko sortutako lau katek beste ikutu bat zeukaten; rockeroagoa. Aurkezpen maketatzat dugu hau, nahiz eta asko landu dugun. Hemendik bost urtera, egin dugun grabaketa honekin harro egotea da gustatuko litzaikeena.

Zergatik maketa deitu?

Egia da maketa deitzen dugun arren, dena asko zaindu dugula: gu gure buruagaz gustura geratzea

“Errodaje handia hartu dugu azken hileetako kontzertuetan”

